

# Topalekua

83 zk. 2013ko azaroa

noviembre 2013 - n.º 83

- 1. orr.: *Gizarte Kontseiluak UPV/EHUk Tekniker Fundazioan parte hartzea onetsi du*
- 2. orr.: *Unibasq-en II. Sinposioan Euskal Unibertsitate-Sistemaren kalitatea eztabaidatu da / Lan-merkatuaren Lurralde Behatokiaren Europako Sarearen IV. Biltzarra Bilbon bildu zen*

- 3. orr.: *Ipar amerikako unibertsitateek enplegarritasun-rankingeko lehenengo postu guztiak hartu dituzte*
- 4. orr.: *Euskadin ahalegin handiena egiten da I+Gn inbertitzeko, gainerako autonomia erkidegoen aldean / Unibertsitateko ikasleek gero eta ziurgabetasun handiagoa dute*

## GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHUk TEKNIKER FUNDAZIOAN PARTE HARTZEA ONETSI DU

Azaroak 13an ospatu den UPV/EHUren Gizarte Kontseiluaren Bilkurak Euskal Herriko Unibertsitateak Tekniker Fundazioaren Patronatuan parte hartzea onetsi zuen. Irabazi asmorik gabeko erakunde horren helburua ikerkuntza zientifikoko jarduerak sustatu eta garatzea eta Euskadin garapen teknologikoa garatzea da.

TEKNIKER IK4 Aliantza Teknologikoaren barruan dagoen zentroa da (Ceit, Cidetec, Gaiker, Ikerlan eta Vicomtech zentroekin batera) eta mekatronikan, fabrikazioen teknologietan eta mikroteknologietan espezializatutako zentroa da, hau da “*Manufacturing*” edo “*Diseinu eta ekoizpen industrialean*”. Zentro teknologikoak produktu industrialak eta kontsumokoak diseinatzen egiten du lan funtsean; marruskaduraren, higaduraren eta lubrifikazioaren ondoriozko arazoaren konponketan; informazioko teknologien eta komunikazioak fabrikara barneratzean, eta doitasun handiko teknologietan, miniaturizazioan eta mikro/nanoteknologietan.

### Ikerketa osagarriak

Horrez gain, Kontseiluak “Ezintasuna eta autonomia pertsonalari laguntzeko teknologia” ikasketa osagarriak burutzeko ikastaroaren tasa akademikoak onartu zituen, hiru hilabete iraungo dituen, eta ECTS bederatzikreditu dituen. Matrikularen prezioa 34,03 euro/kreditua finkatu da.

Bestetik, aurrekontuen hainbat aldagata onetsi zituen Bilkurak eta baita 2013 urteko lehenengo hiru hilabetei dagozkien Gizarte Kontseiluaren informazio finantzarioaren egoerei ere.



Néstor Eriz

Azkenik, Bilkura berean, Néstor Eriz sartu zen Gizarte Kontseiluan Confebask-en ordezkari gisa, azken bi urteotan Kontseiluan aritu diren euskal erakundearen hiru ordezkarietako bat izan den Federico San Sebastiánen ordezkari.

## UNIBASQ-en II. SINPOSIOAN EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN KALITATEA EZTABAIDATU DA



Asier Aloria, hitzaldia ematen ari zen bitartean.

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariak, Juan Andrés Legarretak, esan du hezkuntza-sistema baten kalitatea irakasleen kalitateak bermatzen duela. Adierazpen hori egin du Unibasqen II. Sinposioari amaiera emateko ekitaldian. Edizio honetan, Euskadiko goi mailako hezkuntzaren bikaintasun-mailak zenbateraino asetzen dituen irakasleak, unibertsitateko ikasleak eta enpresak aztertzea gai nagusizat hartu da.

Legarretak azaldu zuen irakasleen eginkizuna ez dela soilik irakastea, baizik eta ikasleek ikas dezaten lortzea. Irakasleen kalitatearen garrantzia hezkuntza-sistemaren kalitate ona lortzeko faktore erabakigarritzat hartu zuen. Sinposioaren ondorioak (Agentziaren webgunean eskuragarri daude: <http://www.unibasq.org>) baliaagarriak izango

dira Unibasqen programak eta metodologiak hobetzeko. Agentziak agintari akademikoaren eta agintari politikoaren eskura utzi ditu, unibertsitate-prestakuntzako prozesuak planifikatzeko erabilgarriak izango direlakoan.

Sinposioaren beste helburu bat, Unibasqen hitzetan, erabiltzaileei Kalitate Agentziaren programak eta prozedurak hobetzeko eskaerak eta iradokizunak ozenki adierazteko aukera ematea zen. Horretarako, jardunaldiaren bigarren zatian mahai-inguru bat antolatu zen honako gai honen gainean: “Erabiltzaileen iritzia: Kontsumitzaile edo aktore?”. Eztabaida horretan parte hartu zuten Gloria Zaballa Pérez-ek, Deustuko Unibertsitateko irakasleak; Francesc Esteve Mon-ek, Universitat Rovira i Virgili-ko irakasleak; eta Asier Aloriak, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko buruak.

Mahai-inguru horretan, Asier Aloriak, UPV/EHUko gizarte ordezkatzeko organoaren izenean, nabarmendu zuen erabiltzaileek (ikasleak, enpresak eta herritarrak) «haien beharrei erantzuteko gai den ondasun bat eskatzen dutela, kalitatea bermatua eta erkatua duena; eta hori eskuratzeko, informazio fidagarria, sinesgarria, egiaztagarria eta nahikoa behar dutela». Haiiek bilatzen dutena zera da: era arrazoizkoan ziurtatu nahi dute lan-etorkizuna, lan-gaitasunak, goi mailako prestakuntza, lan-merkatuari egokitzeko gaitasuna, ezagutzen transferentzia eta onura sozialen itzulkina izango dituztela. «Laburbilduz, ziurtatu nahi dute ahalik eta etekin handiena aterako diotela batzuek “prestakuntzan inbertitzea” deitu dioten horri. Azken finean, kostu handiko inbertsioa da, baina onura pertsonal eta sozial handiak lortuko direlako itzaropenarekin egiten da».

## LAN-MERKATUAREN LURRALDE BEHATOKIEN EUROPAKO SAREAREN IV. BILTZARRA BILBON BILDU ZEN

Duela egun gutxi, Lan Merkatuaren Lurralde Behatokiaren Europako Sarearen IV. Biltzarra Bilbon izan zen. Topaketa honetan bildu ziren nazioarteko erakundeetako ordezkarriak (CEDEFOP, OECD, Enplegu, Gizarte eta Inklusio Politiketako Zuzendaritza Nagusia) eta Europako eskualdeetako politikariak, teknikariak eta zientzialariak. Helburua lan-merkatua zaintzeko teknika eta ikuspegi berritzaileen berri elkarri ematea zen. Biltzarra Prospektiker erakundeak antolatu zuen, Bizkaia Talent, Lanbide eta UPV/EHU erakundeen lankidetzarekin batera. Prospektiker taldearen ustez, biltzarrak erakutsi du Euskal Autonomia Erkidegoa europar eskualdeen abangoardian dagoela, gai horri buruzko trebetasunak eskuratzeari dagokionez.

Lan Merkatuaren Lurralde Behatokiaren Europako Sarea irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Erakundeko ki-deak urtero elkartzen dira lan-merkatua aztertzeko egoiak diren ikerketa-tresnak, –metodoak eta jardunbide onak partekatzeko asmoz. Krisi-egoera orokorra dela eta, maila guztietako erabakiak hartu behar direnean, informazio gehiago behar da. Ildo horretatik, Behatokiaren eginkizuna datuak soilik ematek lan-merkatuaren portaerari buruzko ezagutzak sortzera aldatu da, eta estrategiak eta

proposamenak ezartzeko tresna ere bada. Estrategia eta proposamen horiek errealitatearekin eta antzemandako joerekin bat datoz.

Juan María Aburtok, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, biltzarra inauguratu zuen, eta Sailaren ekintzak eta proiektuak azaldu zituen. Horren harira, Lan Merkatuaren Behatokiaren Sarearen garrantzia azpimarratu zuen. Behatokiak erabakiak hartzeko datuak eta informazioa emateaz gain, analisiak, azterlan estrategikoak eta ekintza-proposamenak egiten dituzte, errealitateari eta lan-merkatuaren epe labur, ertain eta luzeko joerei buruz.

Biltzarrean parte hartu zuten kideen artean, nabarmentzekoak dira honako hauek: Ronald McQuaid, Stirling Unibertsitatekoa (Erresuma Batua), Cristina Martínez-Fernández, OECDko LEED Programakoa (Frantzia); Christa Schweng, LMO, CESE (Belgika); Konstantinos Pouliakas, Cedefop (Grezia); Gelu Călăcean, Enplegu, Gizarte eta Inklusio Politiketako Zuzendaritza Nagusia; Christa Larsen, IWAK, Frankfurtuko Goethe Unibertsitatea (Alemania); edo Hilary Stevens, Exeter Unibertsitateko Marchmont Behatokiakoa (Erresuma Batua).

## IPAR AMERIKAKO UNIBERTSITATEEK ENPLEGAGARRITASUN-RANKINGEKO LEHENENGO POSTU GUZTIAK HARTU DITUZTE

*Global Employability Survey 2012* txostenean enplegagarritasun-irizpideen arabera aukeratuak izan ziren goi mailako hezkuntzako 50 ikastegik osatutako ranking bat jaso da, eta Ipar Amerikako 23 unibertsitatek, hain zuzen, lehenengo postu guztiak hartu dituzte. Bigarren posizioan Europako unibertsitateak daude: 21 aipamen dituzte, eta Asiakoak baino gorago daude, Asiak 2 aipamen dituelako. Lehenengo postuetako 50 unibertsitateetako bi Espainiako Estatukoak dira: IE University (34. postuan) eta Nafarroako Unibertsitatea IESE (36. postuan).

*Global Employability Survey 2012* txostena Emerging aholkularitza-enpresak eta Trendence Alemaniako estatistika-institutuak egin dute. Bertan aztertu dira langileak kontratatzerakoan zer unibertsitate nahiago dituzten enplegu-emaileek, unibertsitate horietan ikasleek preskakuntzarik onena jasotzen dutela uste baitute. Hori horrela, Alemaniako, Australiako, Txinako, Estatu Batuetako, Espainiako Estatuko, Frantziako, Italiako, Suitzako eta Erresuma Batuko 1.000 enpresatako 2.200 enpresazuzendariren eta goi mailako exekutiboren iritzia ebaluatu du azterlanak. Horren ondorioz, 150 unibertsitate onenen zerrenda egin du, enplegagarritasunari dagokionez.

Gure ingurunean irakaskuntza-erakunde bi lehenengo 50 postuetan daude, eta haietako bat bakarrik, Universitat Ramón Llull, enplegu-emaileen iritzien arabera onenak diren 150 unibertsitateen zerrendan dago; 130. postuan, hain zuzen. Rankingeako lehenengo bost postuetako unibertsitateak honako hauek dira: Oxford, Harvard, Cambridge, Yale eta Stanford.

### Ezagutzak eta gaitasunak

Enplegu-emaileen arabera, Espainiako Estatuko unibertsitateko ikasleek honako alde hauek hobetu behar dituzte: hizkuntzak ezagutzea, enpresa-munduarekin lotura handiagoa izatea eta inteligentzia emozionala sustatzea. Beraz, erakunde akademikoen kalitatearen balioa aintza-

testen duten arren, enplegu-emaile guztiek aipatzen dute ez diela beren behar profesional guztiei erantzuten.

### Hautaketa egiteko irizpideak

Rankingean ebaluatu dira: batetik, graduatuak aukeratzeko prozesua; eta, bestetik, enpresek kontuan hartu ohi dituzten irizpideak:


- Haietako %21,8k esan zuen hautagaiak aukeratzekoan, irizpide nagusia unibertsitatea, non hautagaiak ikasketak eginak zituen, zela (eta %45,1ek uste zuen hori garrantzitsua zela, besterik gabe). Espainiako elkarrizketatuen %26,8k garrantzi berezia ematen zion unibertsitateari; izan ere, hautagaiak aukeratzeko faktore nagusizat hartzen zuen (%42,9k kontuan hartzeko elementutzat jo zuen).
- %33,1ek esan zuen hautagaiaren trebetasunak eta eskarmentua baloratzen zituela.
- %30,4k hautagaien gaitasunak eta ibilbidea azpimarratu zituen.

Antza, unibertsitatearen garrantzia ez dago zalantzan. Hala ere, are nabarmenagoa da kontuan hartzen bada gero eta enpresa gehiagok unibertsitate-zerrenda itxiak erabiltzen dituztela, enplegatuak bilatzeko. Hori horrela, giza baliabideen saileko arduradunen bi heren inguruk erreferentzia gisa erabiltzen dituzte agiri horiek.

Unibertsitateei puntuak emateko irizpideei dagokienez:

- %27,9k batez ere kontuan hartu zuen ikastegiko graduatuekin izandako esperientzia.
- %18,6k irakasleei eta tresnei eman zien garrantzi handiena.
- %17,4k munduan argitaratzen diren rankingei erreparatzen die.
- %16,7k enpresa-munduarekiko loturak eta irakaskuntza praktikoko estiloak baloratzen ditu.
- %14,2k ospea hartzen du kontuan.

### GRADUDUNEN HOBEKUNTZA-ARLOAK (ehunekoak)




## EUSKADIN AHALEGIN HANDIENA EGITEN DA I+Gn INBERTITZEKO, GAINERAKO AUTONOMIA ERKIDEGOEN ALDEAN

Autonomia Erkidego guztiekin erkatuta, 2012an, Euskadik BPGdren ehuneko handiena inbertitu zuen I+Gn, zehazki, %2,19. Hala diote behintzat Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratu dituen datuek. Azterlan horren arabera, berrikuntza eta garapenean egindako gastua EAEn %2,4 igo zen ekitaldi horretan. Espainiako Estatuan, ordea, gastu horrek %5,6 egin zuen behera, 2011ko datuen aldean. Denbora-tarte berean 17 autonomia erkidegotik 15ek esparru horretako inbertsioa murriztu zuten.

EAEn atzetik, Nafarroako Foru Erkidegoa (BPGdren %1,91) eta Madrilgo Erkidegoa (%1,82) datoz. Aitzitik, I+Gn gastu txikiena egin zuten erkidegoak Balear Uharteak (%0,34), Kanariak (%0,51) eta Gaztela-Mantxa (%0,64) izan ziren.

Zifratan, Eustatek emandako datuen arabera, Euskadiko inbertsioa I+Gn 1.372,9 milioi eurokoa izan zen 2012an, zehazki, aurreko ekitaldiko baino %0,5 handiagoa. EAEn, I+Gko jardueretan lanaldi osoan aritu zuren langileak 18.682 izan ziren, eta kopuru hori aurreko urtekoa baino %4,5 handiagoa da. Kopuru hori EAeko ekonomiako lanpostu guztien %2,08 da. 2012an, enpresek beren gain hartu zuten EAEn egindako I+Gko inbertsio handiena, zehatz-mehatz, %75,8 (1.041,2 milioi eurokoa). %17,9 (245,1 milioi) goi mailako irakaskuntza egin zen, eta %6,3 (86,6 milioi) Administrazioaren mendeko zenbait erakundek inbertitu zuten.

### I+Gko gastua, autonomia erkidegoen arabera (milioi eurotan eta 2012/2011 aldiko bariazioaren ehunekoak)



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

## UNIBERTSITATEKO IKASLEEK GERO ETA ZIURGABETASUN HANDIAGOA DUTE

Unibertsitateko ikasle espainiarren %89k ziurgabetasunez begiratzen dio bere lan-etorkizunari. Hala dio *Graduate Barometer 2013* azterlanak, Alemaniako Trendence Institutuak egin duenak. Azterlan berean antzeman dute lan bila estatutik irteetako joera gero eta handiagoa dela. Langabezian dauden gazteen tasa handiak (%41,7) eragina izan du ikasleengan. Izan ere, barometro horren aurreko edizioetan, ikasleek ez zuten estatutik irteetako gogo handirik erakutsi. Gaur egun, ordea, unibertsitateko bi ikasletako batek ziurtatu du atzerrira joango dela, lana lortzeko beharrezkoa baldin bada.

Era berean, barometroak agerian utzi du unibertsitateko ikasle gazteen pertzepzioak eta jarrerak nabarmen aldatu direla:

- **Ordaindu gabeko lan-praktikak:** negozio-ikasletetako ikasleen %54 eta ingeniartzari eta informazio-teknologiari buruzko ikasketetako ikasleen %42 praktikak egiteko prest daude, horrek haien curriculum hobetuko baldin bada.
- **Lan-etorkizuna:** ziur daude gutxienez 60 edo 70 hautagaitza bidali beharko dituztela, enplegu bat lortzeko; eta kontratu bat lortu arte 9 hilabete inguru igaroko direla.

- **Baikortasun-tasa:** bi urte lehenago %66koa zen, eta lau urte lehenago %77koa. Gaur egun, tasa hori enpresa-ikasletetako ikasleen artean %30ekoa da; eta ingeniarien kasuan, duela lau urte %81ekoa eta 2011n %70ekoa bazen ere, gaur egun, %38koa da.
- **Bizitza-mailari buruzko itxaropena:** ikasleen %61ek eta %52k uste dute bere lan-ibilbideko une batean edo bestean aurre egin behar izango dietela soldata-murrizketei. Dena den, haien gurasoen bizitza-maila berari eustea espero dute.
- **Enplegu-emaileak:** ingeniartzita-ikasleen %61ek eta negozio-ikasletetako %51k adierazi dute ez dutela konfiantzarik enplegu-emaileengan.
- **Gaitasunak:** enpresa-ikasletetako ikasleen %30ek uste du jasotako prestakuntzak ez dizkiola bermatzen laneratzeko behar diren gaitasunak.
- **Lan-tresnak:** Enpresa-ikasletetako ikasleen %30,5ek ez du uste lan egiteko beharrezkoak diren tresnak dituenik. Azterlanean ikertu dituzten zazpi herrialdeetan lortutako ehuneko ezkorrena da, eta batez bestekoa (%22) baino ia %10 handiagoa da. Ingeniartzita-ikasleen %26,7k uste du bere prestakuntza ez dela nahikorik; eta ehuneko hori Europako batez bestekoa baino %5,2 altuagoa da.